

Ta beste gai batzuk bijaramoneko batzañaldirako utzi-ta, au, oiturazko otoitzaz, amaitu da.

---

## Donosti'n, Aldundi - Jauregian, 1922'ko Epaila' ren 31'an.

Aurëan aipatzen diran euskaltzain jaun berak batzañaldira datoz; urgazlerik batez. Otoitzez, beti bezela, asi da.

1. *Eusko-Ikaskuntza*'k bidalitako *Irakultza-Idaztia* Eleizalde jaunak zerbait azteñtu du, ta berak diyo- nez, erditan dauka oraindik. Urëngo batzañaldirako orën txostena ekañiko du.

2. Ariandiaga jaunaren *Geometria* Olabide jaunak ez du osoro azteñtu, ta bere ta Eguskitza jaunaren aburua urëngo batzañaldian azalduko da.

3. *Euskal-egunetan* egin zan idazle-batzaldiko epaileen aburuetan, Lekuona jaunarena utsean dago. Jaun oni bere aburua askotan eskatu zayo, ta ez du oraindik bidali. Beste epaileenak, Olabide ta Ormaetxea jaunena, aspaldi Euskaltzaindia'n daude. Onek arazo oni azkena eman nairik, auxe erabaki du: Olabide ta Ormaetxea jaunena aburuak eredutzat arñu-ta, Azkue ta Eleizalde jaunak eman bezate azken-epai ori.

Lekaroz'ko Ikastetxean, ango euskal - azteñketak ikertzera Intzagarai euskaltzainia bijoa.

5. *Eskutitz*. *Schuchardt* jaun jakintsuak bere batean dasa, ezin azaldu ditekela Gernika'n *Congreso Vasco* egunetarako.

6. Ostera ere aditz-jokeraren arloa euskaltzain artera badator. Urkijo jaunak dasa: XVI ta XVII Mendetako adiz-jokerategi bat aguro-xamar egin ditekela. Bayetz ere euskaltzañak deritzate. Ortarako *auñe-oar-bide* bat idatzi bear litzake. *Anteproyecto o plan de las formas verbales*. Oar-bide au egiteko ardua Lakonbe, Olabide ta Altube jaunak arfu dute.

Aditz-jokeren bilketarako, XVI ta XVII Mendetako idaztiak, onela banatu dira euskaltzain jaunen artean:

Azkue jaunari: *Refranes y sentencias*.

Euskaltzaindikiko lankide jaunai: *Kapanaga*.

Urkijo jaunari: *Merula - Marineo Siculo - Materre - Voltaire - Debocino escvara (Jean Haramboure), Los refranes del caballero de Vela ta Eguia Katholica (Bernard Gasteluçar)*.

Eleizalde jaunari: *Onsa hilceco bidia (Yvan de Tartas) ta Deboten breviarioa (P. D' Argaignarats)*.

Lakonbe jaunari: *Plegarioac, Refranes y poesias de Oihenart ta Jesu Christoren Imitationea (D' Arambillaga)*.

Eguskitza jaunari: *Leizañaga*.

Olabide jaunari: *Refranes de Sauguis eta Mendiburu*.

Altube jaunari: *Refranes de Garibay*.

Intza jaunari: *Catecismo de Beriain*.

Intzagarai'ri: *Manual devotioñezcoa, Noelac (Joannes Etcheberri), Catecismo de Richelieu de Silvain Pouvreau ta Philothea (Pouvreau)*.

7. Gipuzkoa'ko Aldundiari urteroko sorospidea eskatzerakoan, eskabidean ezari bear da: Iztegiaren lanak ta Azkue jaunaren *Euskal atzizkiak* argitaratzeko eskatzen zayola sorospide orixe.

Ta beste gairik ez izanik, amai eman zayo batzafaldi oni oiturazko otoitzaz.